

# HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

### [ A eredua ]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 30 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira.</li> <li>• Hiru irakurgai dira eta guztira 34 item.</li> <li>• Lehenengo ariketan item bakoitzak 0,4 puntu balio du; bigarren eta hirugarren ariketetan 0,8 puntu.</li> <li>• Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 1.700 hitz gehienez.</li> </ul>	50-60 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	90 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

### 1. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

## ESI: ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUEN SORRERA

Duela lau urte hasi zen Osakidetza osasun-zentroen integrazio-prozesua **1**. Erakunde Sanitario Integratuak sortuta, haien asmoa da laguntza-zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalak **2** guzti-guztien beharrak asetzea. «Gure osasun-ekintza guztien ardatza da pertsonengan osasun-emaizak hobetzea. Laguntza-prozesuak integratuta, uste dugu **3** sanitarioak antolatu eta hobetuko ditugula. Asmoa da koherentzia ematea eta koordinazioa eta sinergiak bilatzea asistentzia-maila guztietan», azaldu du Andoni Arcelay Integrazio Asistentzialeko eta Kronikotasuneko zerbitzuburuak.

Bi alderdi ditu Osakidetzako integrazioarako estrategiak: «Bati *integrazio estrukturala* deitzen diogu, eta ospitale bat eta bere osasun-zentroak bateratzean datza, **4** azpiegitura bakar bat osatuz. Horri deritzo Erakunde Sanitario Integratua, **5**. Bestea diseinuari dagokiona da, eta lehen mailako asistentziaren eta asistentzia ospitalarioaren arteko ibilbidea diseinatzean datza», dio Arcelayk.

Integrazio Asistentzialeko eta Kronikotasuneko Zerbitzuko lantaldea bost profesionalak osatzen dute, eta haien egitekoa da integrazio-prozesuan eman beharreko ekintzak erraztea eta dinamizatzea. «Zerbitzu-erakundeekin harremanetan daude, bilera eta tailerrei esker, **6**». Erakunde Sanitario Integratuen garapenean emandako aurrerapausoak eta bidean topatutako zailtasunak partekatzen dituzte saioetan.

Integrazio Prozesuak eragin zuzena du, bai ospitaleetan, bai lehen mailako arreta-zerbitzua eskaintzen duten zentroetan ere. «Lehen, zenbait mailaren artean banatzen zen pazientearen informazioa, eta ez zen egokiena gero pazienteari arretarik onena eskaintzeko. Integrazioak, ordea, maila guztien koordinazioa **7** du, etengabeko asistentzia bermatuz –gaitza tratatzeko ezinbesteko elementua–. Bai pazienteak, bai bere familia, hobeto tratatuta sentituko dira, eta profesionalak lanerako tresna gehiago izango dituzte; **8**, errazago hartuko dira pertsona eta egoera bakoitzari dagozkion erabakiak».

Arcelay adituak dioenez, zerbitzu guztietako profesionalen koordinazioa bermatuz, posible izango da informazioa partekatzea; ondorioz, gaur egun, **9** diren hainbat hutsune zuzendu egingo dira: probak errepikatzea, beharrik gabeko bisitak eta ospitaleratzeak, eta abar. «Kalitate handiagoko laguntza emango dugu, eta, nola ez, prozesu osoaren gestio administratiboa **10** da. Hala, sistema eraginkorragoa izatea lortuko dugu».

Profesionalentzat ere **11** da lan egiten duten zentroen kudeaketa bateratzea. **12**, haien artean informazioa eta ezagutza partekatuta, errazago hartuko dituzte paziente eta familia bakoitzaren osasunaren inguruko erabakiak. Eta, profesionalak ez ezik, pazienteak ere irabazten aterako dira integrazio-prozesuari esker. «Paziente bakoitzaren erreferentziatzko ekipoa hobeto koordinatuta egongo da; ondorioz, ez ditu koordinazio desegoki baten ondorioak **13**: denbora laburrean proba medikuak errepikatu behar izatea eta zentro medikoetara behar baino gehiagotan joan behar izatea, **14**».

2010ean aplikatu zuten lehen aldiz integrazio-prozesua, Bidasoako Erakunde Sanitario Integratua sortuta. 2011ko azaroan, beste hainbat bateratze **15** zituzten: Debabarreneko ESI, Debagoieneko ESI eta Goierrri-Urola Garaiko ESI. Aurten, beste hiru erakunde bateratu dituzte: Barakaldo-Sestaoko ESI, Galdakao-Barrualdeko ESI eta Bilbo-Basurtuko ESI. Arcelayk azaldu duenez, «orain arte integratu diren zentroak ondo ari dira funtzionatzen; hasi dira enfoke integratuaren emaitzak ikusten. **16**, Bidasoako Erakunde Sanitario Integratua izan zen martxan jarri zen lehenengoa, eta dagoeneko jasotako emaitzak etorkizun handikoak dira. Pluripatologiak dituztenen arreta-zerbitzuen kasuan, adibidez, ospitaleratzeak

% 38 jaitzi dira. Datu horiek pentsarazten digute gaixoak ospitalera joan beharrik izan gabe etxean ondo zainduta daudela». Datozen bi urteetan falta diren **17** bost prozesuak sortzeko asmoa du Osasun Sailak. Horietako bat Araban –Arabako ESI–, bi Bizkaian –Gurutzetako-Ezkerraldeko ESI eta Uribe-Urdulizeko ESI–, eta beste bi Gipuzkoan –Gipuzkoa-Tolosaldeako ESI eta Gipuzkoako ESI–. Horiekin, amaitutzat emango dute adituek Osakidetzaeren erakundeen integrazio-prozesua bere **18**.

Osatuberrri, 2014ko otsaila. Egokitua.

### 1. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

1. a) aztoratzen  
 b) irauten  
 c) islatzen  
 d) garatzen

2. a) taldeko  
 b) gizadiko  
 c) norbanako  
 d) inguruko

3. a) kanpaina  
 b) iragarki  
 c) osasun  
 d) zaintza

4. a) eraikinerako  
 b) sustapenerako  
 c) bermerako  
 d) kudeaketarako

5. a) hain zuzen  
 b) bederen  
 c) hala nola  
 d) bidenabar

6. a) batez beste  
 b) besteak beste  
 c) alabaina  
 d) esate baterako

7. a) hornitzen  
 b) aldarrikatzen  
 c) sustatzen  
 d) gailentzen

8. a) aldiz  
 b) horrela  
 c) hala nola  
 d) hots

9. a) antzematen  
 b) ihartzen  
 c) egokitzen  
 d) begitantzen

10. a) lehenetsiko  
 b) laudatuko  
 c) alderatuko  
 d) murriztuko

11. a) izugarria  
 b) onuragarria  
 c) eskuragarria  
 d) deigarria

12. a) Bestalde  
 b) Dena dela  
 c) Izan ere  
 d) Haatik

13. a) erantsiko  
 b) leporatuko  
 c) pairatuko  
 d) barneratuko

14. a) hurrenez hurren  
 b) esaterako  
 c) batik bat  
 d) aitzitik

15. a) gauzatu  
 b) jorratu  
 c) gainditu  
 d) artatu

16. a) Esan bezala  
 b) Hala ere  
 c) Halaber  
 d) Egia esan

17. a) ordezko  
 b) inguruko  
 c) gainetiko  
 d) gainerako

18. a) baitan  
 b) tamainan  
 c) osotasunean  
 d) egunerokotasunean

## 2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

### ZIENTZIA FIKZIOA. GIZAKION KEZKAK TEKNOLOGIAREN AURREAN

Zientzia-fikzioak (ZF) gogokoen duen gaia da teknologiaren aurrerapena eta horren eragina naturan eta gizakiongan. Literaturaren genero gisa, ZF iraultza industrialarekin batera garatu zen. Pentsaera positibistaren isla, ZFren egileek garapen teknikoaren ideiak sortzen duen lilura jaso zuten. Jules Verne eta H.G. Wells egileek ezezaguna esploratzeko teknologiak irekitzen dituen aukerak goraiatu zituzten. Hala ere, ezin da esan beren ikuspuntua akritikoa izan zenik, etorkizunari buruzko beren proiektioetan baliabide naturalak agortzea eta teknologiaren erabilera oker baten arriskuak eta katastrofeak kontuan hartzen baitira, eta, hainbatetan, aurrerapen teknikoaren onuradun bakarra gizartearen elite bat izaten baita. Izan ere, teknologia gizadia zatitzeko beste tresna bat baino ez da, bakarrik goiko klaseek kontrolatua denean.

1818. urtean, Mari Shelley idazle britainiarrak *Frankenstein* eleberria argitaratu zuen. Zientzia-fikzioaren lehenengo lan horretan bertan aurkitzen dugu gai errepikari bat izango dena: ezezagunak sortzen duen ikara. Baina ikara hori, «besteek» sor dezaketen beldurra, batik bat XIX. mendearen bukaeratik aurrera garatu zen, hain zuzen ere, darwinismo sozialaren teoriak hedatzearekin batera. Izan ere, berezko hautespenari buruzko Darwinen teoriak gizakietan ere ezartzeak arrazismo, kolonialismo eta eugenesiaren aldeko ideologiak indartzea ekarri zuen.

Gizadia bitan, edo zati gehiagotan, banandua azaltzen den ZFren kontakizunak ez dira gutxi izan. Hala ere, agian itxura gordetzearren, deseroso sentiarazten gaituzten edo gorrotatzen ditugun giza talde horiek askotan estralurtarrez mozorrotzen dira. Estralurtarra, ezagutu baino lehen, edozertarako balio duen pertsonaia zital bihurtu dugu. ZFren historian, gutxitan azaldu da izaki adiskidetsu gisa. Baina, esan bezala, estralurtarrak metafora bat baino ez dira. H. G. Wellsen *The War of the Worldsen*, alienigenen itxurak berak gerta litekeen giza eboluzio akastun baten emaitza irudikatzen du, zeinak mendebaldeko gizartearen oinarriak eta balioak mehatxatzen baititu.

Beste lan batzuetan ere gizakia sailkatuta agertzen da. Adibidez, Fritz Lang-ek, New York hiria bisitatu ondoren, ikuspegi sozial eta kritikoagoan oinarritzen den *Metropolis* filma egin zuen. *Metropolis*en, gizartea oso mailakaturik dago eta lur azpian bizi dira industria-langileak. Garaiko «lanaren antolaketa zientifiko» izenekoaren eta garapen teknologikoaren ondorioz, langileek erabateko alienazioan bizi behar dute, esklabo gisa.

XX. mendeko bi mundu-gerren artean, estatubatuarren garaipenak eta 1929ko krisialdiak beste osagai bat ekarri zuten zientzia-fikzioaren eremura: superheroia. Adituen ustean, superheroia armada estatubatuarren sinboloa da. Superheroiak gure planetan edo kanpoko espazioan dauden hamaika mehatxuri egin behar dio aurre. Komikietan, liburuetan eta filmetan zabaldu diren superheroien istorioek ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka irudikatzen dute. Erljio-kutsua nabaria da, baita harrokeria aberkoia ere, ez baitzen ezkututzen mendebaldeko zibilizazioak ordura arte kontrol gabe zituen lurraldeak eta herriak kolonizatu nahi zituela.

Zientzia-fikzioan iragarpen katastrofikoak ohikoak dira; batzuetan, gizakiek ama-lurra ere utzi egin behar izaten dute. Egia esan, badago katastrofismorako arrazoirik. Estatubatuarrek Japoniako Hiroshima eta Nagasaki hirietan botatako lehergailuek teknologiaren ahalmen suntsitzailea itzela zela frogatu zuten. Bestalde, ez da ahaztu behar joan den mendearen azken zatian hainbat gaixotasun ezezagunen hedapena ikusi dela, eta horietako batzuek erabilera teknologikoarekin zerikusia dutela ematen du.

Azken hamarkadetan, aldaketa klimatikoarekin zerikusia duten ezbehar masiboak irudikatu dira. Bilduma agortezina eta ezaguna da: beroketa globala, glaziarrek galtzea, itsas-maila igoetzea... Azpigeneroak badu izena: ekofikzio apokaliptikoa. Hala ere, fenomeno horien erantzukizuna azaltzean, aldaketa nabarmena gertatu da: orain, errua gero eta kolektiboagoa da, hau da, gero eta galduagoa.

ZFko kontakizun berrietan, besteak beste, nanoteknologiak, ingeniari- eta genetikoak eta adimen artifizialaren inguruko ikerketek honako hausnarketa hau planteatzen dute: etorkizunean non kokatuko da gizakiaren eta makinaren arteko bereizte-lerroa? Paradigmatiko bihurtu zen *Blade Runner* filmean eta eleberrian muga hori desagertu egin da, eta bata eta bestea ezin dira bereizi.

GONZALEZ DE GARAI, Iñaki. <[www.gaiak.net](http://www.gaiak.net)>, 2013ko martxoa. Egokitua.

## 2. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 19. Zer esaten da Jules Verneren eta H.G. Wellsen inguruan?

- a) Etorkizunari buruzko aurreikuspenetan, gizarte-kritika iradoki zutela.
- b) Teknologia berriak erabiltzen hasi zirenean, katastrofeak zituztela xede.
- c) Euren liburuetan pertsonaia nagusiak goiko klasekoak baino ez zirela.

### 20. Zer esaten da ikaraz?

- a) Guk ezin dugula kontrolatu, batik bat XIX. mendearen bukaeratik aurrera gertatutakoagatik.
- b) Eleberri askotan islatzen dela eta ziurtasun-ezak sortzen duen sententzia dela.
- c) Darwinen teoriak geroztik areagotu egin zela ezezagunak sortzen duen beldurra.

### 21. Zertarako erabili izan ohi dira estralurtarrak?

- a) Mespretxagarriak iruditzen zaizkigun multzoak bereizteko.
- b) Etorkizunik merezi ez duten pertsonaia karakterizatzeko.
- c) Mendebaldeko gizarte desitxuratua irudikatzen.

### 22. Zer islatzen da Metropolis filmean?

- a) New Yorkeko langile-klaseen artean dagoen harremana.
- b) New Yorkeko gizarte-antolamenduari buruzko kritika.
- c) New York hirian egindako giza esperimentua.

### 23. Zer aipatzen du artikulugileak superheroieiz?

- a) Bigarren mundu-gerra bukatu zenean sortu zirela.
- b) Aberriaren aldeko jarrera handiustea erakusten duten pertsonaia direla.
- c) Mendebaldeko zibilizazioaren pentsaera kontrolatzeko sortu zirela.

### 24. Zer beste gertaera adierazteko balia daiteke zientzia-fikzioa?

- a) Urteetan zabalkunde geldiezina izan duten gaitzak adierazteko.
- b) Lurra uzterainoko triskantza sortzen duen katastrofea adierazteko.
- c) Sartaldeko hirietan ezustean izandako leherketak adierazteko.

### 25. Azkenaldian, zer erakutsi nahi izan da ZFren bidez?

- a) Planetaren eraldaketa ekarriko duten fenomenoak saihesteko konponbideak.
- b) Ekofikzio apokaliptikoak ekarriko dituen ondorioen erantzuleak nortzuk diren.
- c) Ezbehar naturalen ardura ez dela batena; askoren eskuetan dagoela.

### 26. Zer islatzen da ZFko kontakizun berrietan?

- a) Gizakien eta makinaren arteko muga lausoa.
- b) Gizakien eta makinaren arteko nahasteak ekiditeko ahalmena.
- c) Gizakien eta makinaren arteko desberdintasuna.

## 3. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu testu zatia dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

## KONTZILIAZIOA EDO LAN-PRODUKTIBITATEA HELBURU?

Espainiako estatutik dator notizia... 2013an Espainiako Kongresuko Berdintasun Batzordeak kontziliazioari eta ordutegien arrazionalizazioari buruzko txostena onartu zuen. Hainbat neurri eta proposamen ageri ditu esandako txostenak, baina, guztietan deigarriena, erlojua ordubete atzeratzea. Berdintasun Batzordeak jaso dituen proposamenen artean dago, era berean, aitatasun-baimenaren iraupena luzatzea.

Txostenak jasotzen duenez, lanaldi luze eta nekeak egiten dira Espainiako estatuan; egindako lanorduen eraginkortasuna, berriz, txikia da; bazkari-afariak berandu egiten ditugu, denbora gutxiago dugu bitzta pertsonalari eskaintzeko, atsedena ere eskas, eta familia-bitzta, edo kontziliazioa, behar bezala garatzeko eragozpen handiak... **27** Garai hartan, Espainiak Europako Mendebaldeko ordu-zona utzi, eta Europa Erdialdekoa hartu zuen. Hortik dator oraingo txostenaren proposamen deigarria, hau da, erlojua 60 minutu atzeratzea. **28**

1884an, egun unibertatsala neurtzeko nazioarteko biltzarra egin zen Washingtonen (AEB). **29** Horretarako, astroak hegoaldeko hodeiartzaren gaineko punturik gorena hartzen duen momentua hartu zuten erreferentziatzat. Handik aurrera, Greenwicheko meridianoa izango zen mundu osoko ordu-zonak erabakitzekeo neurria. Espainiako estatuari Europa Mendebaldekoa zegokion, Portugal, Frantziari eta Erresuma Batuari bezala, esaterako. Horrek, ordu baten aldea esan nahi zuen Europa Erdialdeko herrietako erlojuarekiko. Egoera hori, ordea, aldatu egin zen 1942an. **30** Euskal Herriari dagokionez, Espainiaren eta Frantziaren mugen barruan dagoenez, Europa erdialdeko ordua baliatu izan da ordutik gurean. Zenbait adituren iritziz, gure ordu ofiziala ez datorrenez bat eguzki orduarekin, gure organismoaren ohiturak ere aldatu egin ditugu. «Amaierarik ez duen jet lag batean» bizi garela ere esan izan dute adituetariko batzuek.

Kontziliazioari eta ordutegien arrazionalizazioari buruzko txostenaren ondorio litzateke, beraz, erlojua ordubete atzeratzeko proposamena. **31** Kontziliazioa du xede batzorde horrek, eta proposatuak dituen neurrien artean da, besteak beste, oraingo lanaldi luze eta zatituaren ordez, lanaldi trinkoa ezartzea. Bitzta pribatua eta lana modu orekatuan uztartu ahal izatea da asmoa. **32** Gurasoen baimen horiei dagokienez, txostenak aitatasun-baimena lau astera luzatzea proposatzen du, eta gurasoen baimenak berdinak eta transferiezinak izatea. Horrek, inondik ere, gurasoen aitatasun- edo amatasun-baimenaren luzapena ekarriko du, 16 astekoa izatetik 32 astekoa izateraino.

Ahots kritikoen arabera, Espainiako Gobernuak hezkuntzan, osasun-arloan, mendekotasunean, gizarte-zerbitzuetan... ezarri dituen murrizketak kontziliazioa eta erantzunkidetasuna ezinezko egiten ari dira. Kontziliazioa ahotan hartu bai, baina Gobernuak horretarako asmo sendorik ez duela esan dute.

**33** Askoz gehiago hitz egin da lanaz, familia barruko bizimodua kontziliatzeaz baino. Datuak, izan ere, deigarriak ere badira: Espainiako langileek ordu gehiegi ematen dituztela lanean esan da, eta ekoizpena, aldiz, txikia dutela. Beraz, bistan da lanordu kopurua handiagoa izateak ez dakarrela, berez, ekoizpen hobea, ez handiagoa. Hori kontuan, Espainiako Kongresuko Berdintasun Batzordearen txostenak produktibitatea areagotzea nahi du, lanaldia trinkotuz eta kontziliazioa bideratuz.

Ordua atzeratzeak eta lanaldiak trinkotzeak, esate baterako, izango lukete bestelako onurarik ere. Goizean goizago lanean hasteak, arratsaldean ordubete lehenago lanetik irtetea esan nahiko luke eta, ondorioz, familia eta lana kontziliatzeko aukera egongo litzateke; hein batean, bederen. **34**

Sektore hori, bestalde, nahitaezkoa da, Espainian langile autonomoen % 90 dendari txikiak baitira, eta horietarik % 60 emakumeak, hots, kontziliazioaren alde gehien saiatzen ari direnak.

Esana da lehendik ere: ordua atzeratzearen inguruko eztabaidan lana eta ekoizpena aztertu dira bereziki, eta ezkutuan geratzeko arriskuan da benetako gaia, hau da, kontziliazioa. Giro honetan, eta txostena, oraingoz, proposamena baino ez bada ere, zenbait ahots kontziliazioa bermatzeko legeria berria eskatzen hasi dira.

**ARIZKUN, Jon.**

**Administrazioa euskaraz, 2014ko urtarrila.**

**Egokitua.**

### 3. ariketa. Txertatu testu zatia

- A.** Eguerdi ofiziala eguzkiaren eguerdiarekin bateratzen saiatu ziren, eginahalean.
- B.** Itxura denez, bestela berrantolatu beharko genuke gizartea, eta ordu bat aurrerago edo atzerago ibiltzeak, besterik gabe, nekez lagunduko du horretan.
- C.** Alabaina, merkataritza-sektorean, adibidez, ez dirudi ordu-aldaketak eraginik izango lukeenik, ordutegiak gero eta gehiago liberalizatzen ari baitira arlo horretan, eta horrek merkataritxikiei ez die ezer kontziliatzeko aukerarik ematen.
- D.** Kontziliazioa ezbaian, lanaldiak eta lanaren eraginkortasunak hartu dute benetako protagonismoa hedabideetan.
- E.** Izan ere, Berdintasun Batzordearen emaitza den txosten horretan ordua atzeratzea ez da helburu, ondorio baizik.
- F.** Naziak Frantzia hartu zutelarik, frantziarrek Alemaniaren ordu-zona hartu behar izan zuten. Halaber, Frantziaren bidetik jo zuen Espainiako estatuak, Francok Hitlerrekiko adiskidetasun-keinu eginez. Londresek eta Lisboak ere bat egin zuten Alemaniaren orduarekin.
- G.** Batzordearen txostenaren arabera, Espainiako estatuak darabilen ordutegi irrazionalaren ondorio dira gaitz guztiok, eta 1942an Francoren erregimen faxistak hartutako erabakia du jatorri.
- H.** Bide horretan, bestalde, Batzordeak Kontziliazio- eta Erantzunkidetasun-lege berria sortzeko gomendioa ere egin dio Espainiako Gobernuari (aitatasun- eta amatasun-baimenak aldatzearekin batera), baina, hori bai, «egoera ekonomikoak horretarako bidea ematen duenean».
- I.** Horren helburua da Espainiako estatuak garai batean izan zuen ordutegia izatea.

#### ■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

<b>Hutsuneak</b>	<b>27</b>	<b>28</b>	<b>29</b>	<b>30</b>	<b>31</b>	<b>32</b>	<b>33</b>	<b>34</b>
<b>Testu zatiak</b>								

<b>Soberakoa</b>	
------------------	--

### Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.**  
**EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

### 1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.  
**Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Zure zerbitzuan ekologiak ia ez du lekurik: ez duzue birziklatzen, ez daukazue gaiari lotutako neurririk hartuta... Zure ustez, ordea, gaiarekiko sentsibilizazio handiagoa izan beharko zenukete.

Idatzi gutun bat zure nagusiari ekologiaren aldeko apustua egin dezan konbentzitzeko, horrek ekarriko lituzkeen onurak azpimarratu, eta, -zerrenda hutsa egin beharrean-, zuen zerbitzua «berdeagoa» izateko proposamen arrazoituak egin ieazkiozu: nola jokatu paperarekin, zer eta nola birziklatu, nola eragin zuen hornitzaile edota bezeroengan, nola aurreztu energia...



### 2. ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako

- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazu iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazu ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

**EGOERA:** Hamasei urteko alabak aho zabalik utzi zaituen zerbait kontatu dizu: bere ikaskide batek antisorgailurik erabili ez eta hurrengo eguneko pilula hartu du. Are gehiago harritu zaitu haien adinean pilula hori zer den eta non eskuratzen den jakiteak. Nondik lortzen dute gaurko gazteek sexuaren gaineko informazioa? Zure seme-alabekin sexuaz gehiago hitz egin beharko zenuke? Gurasoek, oro har, hitz egiten ote dute?

Horrek guztiak gogoeta eragin dizu eta herriko aldizkarian iritzia idaztea erabaki duzu.

#### GAIA:

#### ZER DAKITE GURE NERABEEK SEXUAZ?

Gazteen % 38k onartzen du antisorgailurik gabeko sexu-harremanak izan dituela noizbait eta alkoholak eragin zuzena izan duela erabaki horretan.



Espainiako estatuan, urtero, 150 bat nerabe izaten dira ama 15 urte baino gutxiagorekin, eta 500 inguru, 15-18 urterekin.

Egungo nerabeak historiako belaunaldirik informatuena izan arren, nahi gabeko haurdunaldiek gora egiten dute; ondorioz, abortuek eta biharamuneko pilularen erabilerak ere bai.

- Gaur egungo gazteek sexuari, gaixotasunei eta antisorgailuei buruzko informazio nahikoa al dute?
- Zein izan ohi da gazteen informazio-iturria: gurasoak, eskola, lagunak, aldizkariak...?
- Nola uste duzu lortu beharko luketela informazio hori?
- Sexuaz gero eta gehiago hitz egiten dugu seme-alabekin, ala tabu izaten jarraitzen du?

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** hutsuneak bete.
- **Irakurgaia:** «ESI: Erakunde Sanitario Integratua»

1.	D	2.	C	3.	D
4.	D	5.	A	6.	B
7.	C	8.	B	9.	A
10.	D	11.	B	12.	C
13.	C	14.	B	15.	A
16.	A	17.	D	18.	C

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «Zientzia-fikzioa»

19.	A	20.	C	21.	A
22.	B	23.	B	24.	B
25.	C	26.	A		

- **3. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- **Irakurgaia:** «Kontziliazioa edo lan-produktibitatea helburu?»

Hutsuneak	27.	28.	29.	30.	31.	32.	33.	34.
Testu zatiak	G	I	A	F	E	H	D	C

Soberakoa	B
-----------	---